



*Eta emaikidazu zure ametsak
jolas nadin
egunen bat,
zuk dakizun hura
jaio artean.*

*(Zuk dakizun hura, Fernando
Pessoaren olerkian oinarritutako
Benito Lertxundiren abestia)*

Sergio Lozano Sangrador / Ignacio García Serna

SEI EGUN ELBRUSEKO ALDE EZKUTUAN

■ Sarrera

Ebrusi kontinenteko gainik altuena dela eta erreparatu geniola suposatzen dut. Egia esanda, ez naiz gomutatzen. Mendi honi buruzko informazioa bilatzen hasi eta tontor bikoitzun sumendi itzali hau igotzea zergatik erabaki genuen ondo gogoratzen naiz, ordea.

Ez genuen zerrendari beste gailur bat gehitu gura. Ez genuen modan dagoen zerrenda batean izen bat ezabatu nahi. Ez zen gure asmoa zenbait metrotako muga gainditzea. Ez zen izango etapa bat etorkizunean erronka gaitzagoei aurre egiteko prestakuntzan.

Eta orain, abiatzeko atarian gaudelarik are garbiago dut. Teleferiko geltokian bertan gaude: kabinak etengabe dabiltza gora eta behera. Gidariekin lagunduta, motxilatxoak bizkarrean, mendizale taldeak ilaran *Diesel Hut* aterpetxerako txandaren zain. Beldar-ibilgailuak maldan gora. Teleferiko harien azpitik ekiten diogu laguna eta biok bideari. Azkar hurbiltzen gara *Baksan* ibai munduratu berrira. Aurrerantzean, beronek Kaukasoko bihotzean hondeatu haranean gora egingo dugu glaziarrek topatu arte.

Ondo baino hobeto gogoratzen naiz. Zeren ia guztiek korritzen duten bidea ez ezik, hainbeste itinerario ezezagunetarik ere saia baitaiteke mendi hau igotzen. Hain zuzen ere, esploratzera goaz. Bai lur-eremu hauek, bai geure buruak. Izan ere, Elbruseko alde ezkutuan barneratu gara.

■ Lehenengo eguna

8 ordu eta erdi: *Azau* herrixka (2350 m) - *Sand Hotel* bibaka (2700 m)

Ezer gutxi dakigu bideari buruz. Bart, hotelean gidari batekin berba egin genuen. Guk galdetu genuen nolako arriskuei aurre egin behar zitzairen. Errusiarrak ingelesez erantzun zigun, soka eramanez gero arazorik ez dagoela. Galderei berrekin genien, ingelesez noski, glaziarrean arrailik dagoen, tontorrerako azken gandorrean malda nolakoa den. Mapa batean guk hautatuko ibilbidea hari erakutsi eta iritzia eskatu genien, hainbeste duda genuen eta. Errusiarrak zer edo zer mamurtzen du, akaso errusieraz. Azkenean ihardetsi egiten digu, ingelesez ihardetsi ere, soka eramanez gero arazorik ez dagoela.

Ezin argiagoa kontua, beraz: soka motxilan eta ibili munduan.

Harana nahiko itxia da. Gure ezker aldeko hormen gainean Kaukasoko erraldoiek agertzen dizkigute beren gailur zorrotzak. Eskuinaldekoek, berriz, atzekoa gordetzen dute gure begiradetatik urrun. Apurka apurka gora egiten digu, errekarri segika, Elbrus noiz ikusiko irrikan.


Beste aldera pasatu beharra dago eta duela urte batzuetako gure mapak argi azaltzen du glaziarra zubi gisa aprobetxatuta non zeharkatu. Beldur gara, ordea, mundu osoan bezala hemen ere lurraren beroketak izotz masa murriztu ote duen. Gure kalkuluen arabera mapak zehaztutako puntua gainditu dugu eta, jela barik, erreka ondoko harriztarretan datak idatzita ikusi ditugu. Seguru asko, datek glaziarrenen muturra noraino heltzen zen markatzen zuten. Bi ordu beranduago morrenara iritsi gara, harrizko paretan

■ *Baksan* ibaia nondik gurutzatuko (lehenengo eguna)




Sergio Lozano Sangrador, Basaurin (1967) jaio arren, egun Leioan bizi da. Umetan herriko apaizak Pagasarrira eramanez zuten egunetik, mendiz mendi ibili da. Izan ere, adinez nagusi denean, mendizalea izatea gustatuko litzaioke. Helduarerako bidaia horretan hainbat mendikate korritu du, estatuan Pirinioak eta Kantauriar mendikatea batik bat, bai eta atzerriko Andeak eta Kaukaso ere. Leku hauetan guztietan, hala ere, Pagasarrin aspaldi ikasitakoa eramanez du motxilan: igotzeko bidea gailurrera iristea baino garrantzitsuagoa dela.

Ignacio García Serna (Donostia, 1967) Otxandion bizi da. *Lurguia* Fundazioan ingurumena hobetzeko lanean dihardu, biologoa izateko bokazioa duen horrek. Mendi- eta naturazaletasunak Alpeak, Andeak, Kaukaso, Kaliforniako Sierra Nevada, Himalaya eta abarrak bisitatzea eramanez du, bai tontorrak igotzea eta bai ornitologiarako afizioan buru-belarri aritzeko ere.



El techo de Europa es cada día más visitado por montañeros y turistas. Sin embargo, la ruta normal discurre por parajes muy humanizados, donde alcanza gran altitud "el eco" de las instalaciones de la cercana estación de esquí de Azau. Los autores del artículo nos describen una interesante alternativa a esa ruta normal que, sin necesidad de una preparación técnica fuera de lo común, nos permite alcanzar la cúspide del Cáucaso siguiendo una ruta poco frecuentada y en un ambiente mucho más agreste y montañoso. La necesidad de portearse todo el equipo y la ausencia de instalaciones auxiliares, hacen del itinerario del plateau Khotiutau y la arista oeste, una aventura de alta montaña realmente adecuada a una cumbre de la entidad del Elbrus.



artean arrakalaz beteriko izotz horma, karotidatik odola balerio bezala ura borbor isurtzen delarik.

Hasiera batean jelara heltzen saiatzen gara. Eskuez lagunduta, morrenaren hegalean aritzen gara. 30 kilo inguruko motxilak bizkarrean. Lokatz, harea eta harri puskatueta gora egitea nekagarria da oso. Gainera, hartzen ari garen altuerak gure egoera arriskutsu bihurtzen du, non heldu ez eta ertza gero eta malkartsuagoa delako, eta urrats bakoitzean zorua zatika behera baitoa. Hitz batean: ia hasi aurretik buka daiteke abentura, eta ez modu onean, ez. Azkenik, ikaratuta eta lehertuta buelta eman eta nola edo hala itzuli gara ibai ertzera.

Haranerantz doan urari jarraitzen diogu marruka, ibi baten bila. Noski, pasagunea ageri da: zer eta soka bat. Urak suga amorratua dirudiela pentsatzen dut biluztu bitartean; besoak bortizki eragiten dituen

olagarrotzarra arnesa janztean; hozka harrapatu nahi nauen munstro-multzoa, mosketoian sokatik eskegita, eskuak tiraka eta hankak sokan jarrita eskuinaldera noan artean; barneratzen ari naizen tunel iluna eta, beste aldean, argitan, gizon bizarduna niri agur egiten, nire pisuak soka luzatzen duela eta ura gero eta hurbilago dudala ikustean. Izan ere, ubidearen erdian urak harrapatzen nau eta kideak gorriak ikusi ditu lehorrera ekarri ahal izateko. Bigarren ahaleginean, aldiz, eta beste muturretik heldu den errusiar taldearen laguntzari esker, beste aldera iristen naiz.

Jarraian, lehenbizi motxilak eta bigarrenik kidea ekartzen ditut. Errusiakoek barrezka laguntzen didate, giro alaian txantxetan. Baina haiei ibaitxoia igarotzea dagokienean irribarreak kezka keinu bihurtu dira. Are gehiago, haietariko bat uraren hatzaparretatik estu

eta larri atera behar dutenean estreinako saiakeran.

Atzean uzten ditugu geure laguntzaileak eta aldapan gora abiatzen gara. Ibartxo mugatzen duen haresia gaintituta muntatzen dugu kanpalekua, *Sand Hotel* bibakean. Sortaldean, *Azau* herrira eta hona ekarri gaituen bidea dugu. Mendebaldean, *Nakratau* eta *Donguzorun* mendiei eusten dieten gainetarako ibartxoia, errekatxo pila batek zeharkatuta. Eta iparraldean, oraindik gure begietatik kanpo, Europako erraldoia.


■ Bigarren eguna

5 ordu: *Sand Hotel* bibak (2730 m) - *Bolshoi* glaziarra (3400 m)

Pirinioetako ibilbide handiaren (*GR* delakoa) antzerako bideak inguratzen du Elbrus hegoaldeak. Egurrezko pioletak, hodi itxurazko motxila luze-luzeak bizkarrean, esterilla zatia zinta lauaz gerrikoan lotuta (elurretan zein harrietan esertzeko gailu pertsonala eta eramangarria), hainbat ibiltari zarpailek korritzen dute bidea. *Eho Vojny* mendilepoan bi adarretan banatzen da: ia altuera galtzeke, xendra bat magaletik jarraitzen du teleferikoaren erdiko geltokira. Beste adarrak, igotzen ari garen horrek alegia, maldan behera hegoaldera jo eta *Azaun* bertan du helmuga.

Mandabidea oso argi dago leku aldapsuetan. Aldiz, tarte lauetan erne ibili behar dugu xendra ez galtzeko, errekatxoak han-hemenka. Altimetroak mantso-mantso egiten du gora. Aspergarri samarra da bidea, gure eskuinean Elbruseko tontor bikiak agertu arte. Hortik aurrera, bidean edo mendi-lepoan barik, elurtutako bi konkoretan geratzen dira erantsita gure begiak. Itzelezko imanaren antzera, Elbrusek erakartzen gaitu eta

■ Elbrus Eho Vojny mendi-lepotik (bigarren eguna)





■ *Khotiutau izotz ordokia gaindituta: ezker aldean Kupol eta eskuinaldean Elbruseko tontor bikoitza (bigarren eguna)*



■ *Kupolerako hegora heltzen (hirugarren eguna)*

erriparen azken zatia indarberrituta garaitu dugu.

Eho Vojny lepora helduak gara. Aurrean *Khotiutau plateau* dugu, gailurretik abiatzen diren glaziarrek biltzen diren lautada. Izotza da hemen nagusi, baita zartadurak ere, zeinetan ur gardenezko hariak arineketa doazen. Leian lurperatutako antzinako animalien bizkarrezurrak bailiran, hainbat labazko formazio ikusten da.

Kranpoiak ipinita erraz zeharkatzen dugu ordokia. Bestaldean, sumendiak aspaldian botatako harriak, elurrak eta izotzak eratutako aldapa. Arrozkazo irla laua bilatu dugu. Soka eta oraindik bustirik daramagun materiala eguzkitan ipini eta kanpalekua muntatu dugu. Gauak hartzen gaitu lelo-lelo eginda, ekialdetik sartaldera pilotzen diren orratz, dorre, harmora eta abarretatik begi-niniak kendu ezinik. Nik galdetu eta Ignaciok erantzuten du: hantxe *Ushba*, hantxe *Skheldak*, *Kazbek*...

Loak hartu eta ametsetan, ume erraldoia ikusten dut. Artazi eskergak daramatza eta lurra mozten doa Kaukasoko mendi zorabiagarriak taxutzen.

■ Hirugarren eguna

5 ordu eta laurden bat: *Bolshoi Azau* glaziarra (3400 m - 4030 m)

Astiro gorantz doan malda leunean ari gara hirugarren egun honetan, lau mila metroko alegiazko helmuga gainditu eta hurrengo kanpaketa erdiestearren.

Elbrus gure xedea beti begi bistan, glaziarrean gora orduak pasatzen zaizkigu isilpean. Erraldoiaren mendebaldean gabiltza eta Itsaso Beltzetik datozen hodeiek zeharo astintzen dute hegala. Baina heldu bezain arin alde egiten dute: orain zerua goibel, berehalakoan eguzkia nagusi. Tontorrean, aldiz, metatzen ari dira lainoak, zerua gero eta itzaltsuago.

Pixkanaka malda inklinazioa galtzen doa, Elbrus ondoko *Kiukiurtliu-Kolbashi* (4639 m) eta *Kupol* (4912 m) mendietara doan hegal malkartsuaren hasieran ia lautada bihurtu arte. Lautada hau bistan dugula hartzen dugu atsedendia: barrira energetiko pare bat jan, sentsazioak elkarri kontatu... Bat-batean helikopteroa entzuten dugu. Ekialdetik dator, teleferiko geltokitik alegia, isiltasuna urratuz,

bakardade eta ezdeusezko bazter honetara kontrapuntua ekarri.

Gure gainean hiruzpalau buelta eman ostean *Kupolerantz* jo eta erriparen atarian lurreratu. Tramankulutik lau lagunek salto egin eta bi kordadatan doaz jelan gora, tontorrek estaltzen dituen ekarraldian barrenera doazela dakusagu, ezin harrituago. Helikopteroa lasterbide hartu duten igandezale hutsak ala ahotzar beltza dirudien ekaitzera abiatzen diren mendizale mutiriak ote diren, batek daki.

Hortik bi ordutara, lautadak eta *Kupolerako* maldak elkarrekin topo egiten duten lekuan, kanpaina-dendarako lekutxoak egokitu, kanpalekua eraiki eta su txikirako zuloa induskatu ondoren, laukote errusiarra hurbiltzen zaigu goitik, gurekin tea eta janaria partekatuz. Beren ingelesa gurea baino kaskarragoa denez, oso gauza gutxi jabetzen gara: helikopteroaz aritu dira, nongoak garen galdetu... Partitutakoan argi dugu ez direla igandezaleak, alpinista zailduak baizik, hots, inguruko mendien modura, harriz eta izotzez eginda dauden horietakoak.

Gure atzean ibarrera joanak dira laurak, eta beraiek jaitziko maldari so gaude: 40-50 gradu inklinazioko malda, segurki arrailak, hodei beltzez eta elur jasez apaindua, bost mila metro ingurura *Kupoleko* ordokia, azkenean ipar-mendebaldeko gandorra eta, mila eta sei ehun metro gorago, jomuga. Bertatik bertara. Urruti, ordea.

■ *Hara, inon, Diesel Hut aterpea eta ohiko bidea (laugarren eguna)*



■ Laugarren eguna

Bolshoi Azau glaziarra (4030 m)

Gaurko plana zehazteke sartu ginen ohera: *Kupoleko* lautadan azken kanpalekua kokatu ala egun bateko atsedena hartu eta hemendik gailurrerainoko saiakera egin. Baina gauak zalantzak garbitu dizkigu. Kanpadendan baino erritmo-kaxan eman ditugu azkeneko orduak. Goiztiriak ikuspegi beltza eta zuria erakusten digu: Kaukasoko mendilerroaren atze-oihal beltzean, marama jaisten dira elur malutak. Noizean behin irten eta sabaian pilotzen doan elurra astindu, izotza urtu eta hidratatu, deskantsatu edo potxingo bihurtu den dendan, orduak iragaten uztea. Finean, nahikoa plana dugu.

Arratseko bostak aldera oihalaren kontrako takatekoak eteten dira. Apur bat itxaron eta kanpora ageri orduko, hegomendebaldetik zerua urdintzen dela ikusten dugu, baita elurretan behera laukote bat hurreratzen zaigula. Atzokoak legez, gurekin hitz egitera gelditu dira. Aitzitik, gaurkoen ingelesa ulerterrazagoa denez, hainbat kontu azaltzen digute heldu berriek. Alegia, parkeko mendizainak direla, *Kupolen* duela gutxi istripua izandako helikoptero baten bila ei dabiltzala eta biharko eguraldiaren iragarpena ona zela. Gu utzi aurretik, Elbruserako bide honetan aspaldiko partez inor ikusi ez dutela aitortu, janaria oparitu eta zorte ona desiratu digute.



Glaziarrean behera doaz jadanik eta gure buruetan erantzunak daude oraindik dantzan. Bistan denez, infernura itsu-mutu sakoneratzen ziren horiek ez ziren, ez mendien bilduma egileak, ez paseatzaileak, ezta kontinenteko ganga zapaltzera etorritakoak ere, nekagaitz, egoskor eta adoretu beren lana burutzen ari ziren errusiarrak baizik, *Miguel Strogoffen* leinukoak. Geroago, oskarbiak ekarritako aterruenak aprobetxaturik, elurrezko palari ekiten diogu. Bihar goiz-goizean martxan jarri eta ilunpetan korrituko dugun bidea ezagutzeko aukera nahi dugu.

Dendan berriz, motxilak prestatu, zopa afaldu eta lo-zakura goaz. Dendatik kanpo baretasuna da nagusi. Barruan, aldiz, hain da nabaria kondentsazioak eta zoruari darion izerdiak ekarritako hezetasuna, non jitoan dauden itsasontziak dirudigun Ignaciok eta biok. Horregatik, somnifero bana irensten dugu. Gureak egin du.


■ Bostgarren eguna

8 ordu eta 45 minutu igoera + 4 ordu jaitsiera: *Bolshoi Azau* glaziarra (4030 m) - Elbrus (5642 m)

Eguna txarto baino txartoago hasi da: iratzargailua entzun ez eta lokartu egin gara. Urrats bat ere ez dugu eman oraindik eta jadanik planteamendua bertan behera laga behar izan dugu. Haatik, ezustekoak hamar minutu baino ez dirau eta bart prest utzi genuen izotza sutan ipini, buelta emateko ordu-muga ezarri, arropa eta arnesak jantzi, termoak teaz bete, arineketa gosaldia eta izarrez jositako gauera irten gara.

Antsietateak jota nabilela jakin arren, lokartu izanak azkar ibiltzera behartzen gaituelako pentsamendua ezin dut burutik kendu: arinago, arinago errepikatzen du oihartzunak nire baitan. Amen batean hegoaren hasierara helduak gara. Kordada muntatzeko geldiuenean lasaitu egiten naiz. Hemendik aurrera, buruan pentsamendurik ez, bidearen eta nire gorputzaren seinaleak salbu.

Kiukiurtliu-Kolbashiko amildegiaren hegian gabilza, malda apalenaren bila. Aurrerago hegoan bertan sartzen gara: gaueko elur eta haizeak ezabatu dituzte atzoko oinatzak eta bat-batean Ignacio gerriraino sartzen da arraila ezkutuan. Orain bai, erabat esnatuta, are erneago



■ Gailurrerako eguna
hasi berria (bosgarren eguna)

jarraitzen diot sokakidearen frontalari, batez besteko ehuneko berrogeiko erripan gora.

Eguzkiaren izpiekin batera ailegatzen gara *Kupol* eta Elbrusen arteko ordokira. Pare-parean eroritako helikopteroa dago. Handik eta hemendik, inurri pila baten arrastoen antzera, garraio bidearen xerka ibili diren mendizainen hartzak eta balizak daude. Bost mila metroko muga gainditu dugu eta altituderearen efektuak geroz eta nabariago sumatzen ditugu. Elurra oso egoera onean dagoenez, soka kendu eta haizetik babestutako eremu honetan oinatz eta balizei jarraitzen diegu.

Ipar-mendebaldeko gandorraren azpian utzi dugu salbamendu-taldeek korrituriko bidea, mendebaldeko tontorra hegoaldeko inguratuz ohiko igoerara eramango gintuzkeena. Guk, ordea, iparraldera jo dugu, ertzeira iristen lagako digun maldaren bila. Seiehun bat metroko horman korridore batzuk agertzen zaizkigu, baina inklinazioagatik nahiz indarrez justu goazelako, kasik gandorraren hasieraraino urruntzen gara. Benetako erasoari ekin



■ Europako punturik altuenean, pozaren pozez (bosgarren eguna)

aurretik, azken atsedendia aprobetxatzen dugu berriro sokaz lotu eta kaloriak irensteko.

Kezka bi darabiltzat buruan: ordua eta geratzen zaigun likido urria, alegia. Hala ere, estutzeko unea ez baina hona ekarri gaituen ametsa errealitate bihurtzeko abagunea da. Egin dezagun aurrera.

Ahuldura gorabehera, azkar samar gabilza, igobide eroso baina eta hegian elurra barik izotza baitago. Hala ere, elurrezko hegalerara sartu behar dugu azken oztopoa gainditzeko: ehun bat metroko harmora. Oстера ere gure hankak murgiltzen dira elur malguan eta pilotutako orduak, grinak eta nekea abailtzen dira gure gainean. Sokan tiraldia nabaritzen dut eta buelta emanda, Ignacio ikusten dut bere burua askatzen. Leher eginda dagoela eta bakarrik jarraitzeko eskatzen dit, nire zain geratzen dela. Altitudeak jota, burugogor agertzen da. Azkenik nirekin segitu du, baina.

Goiko hegira iristear gaudela banderatoxoak eta gaurko lehendabiziko gizakiak ikusten ditugu. Harrituta begiratzen digute, ia bi metro zabal den bidetik igotakoek, ezerezetik azaldutako mamuak baikin. Gainera mugarrira negarrez eta elkarri besarka hurbiltzen garen mamuak.

Erlojuak ordu bi eta erdiak direla markatzen du, bart finkatu genuen itzultzeko ordua. Hau da: argazki batzuk ateratzeko astia besterik ez dugu. Napoleonek esan zukeen moduan, Europa dugu geure oinetan. Bai eta hark egin zukeen moduan, garaiz erretiratu behar dugu, jaitsiera luzea izango baita.

Gaua jabetzen ari da Kaukasoko bazter ezegzagun hauetaz. Urrutiko dendatxoan, jela urtzen duen su txikiaren lo-kanta atseginean, munduko bi mendizalerik zorionsuenek ez dute barbarik egiten, ametsetan ari dira, beren lanak egia bilakatzen dituzten amets goxoak.

■ Epilogo (seigarren eguna)

Bihar presa barik esnatuko gara, kanpadenda batu eta *Khotiutau plateau*-raino igotzeko oinatzari jarraituko diegu. Han bide ezaguna laga eta teleferikoaren erdiko geltokira abiatuko gara. Loak hartzen nau baina, jaitsi ahala, gure indar zimelduak berpiztu egingo direla pentsatzen dut, hoteleko dutxa beroa eta afaria irudikatzen dudan bakoitzean, gure gorputz makalak gazteagotzen direla emango duela. □

Datu teknikoak

Kokapena: Errusiako autonomia-errepublika den Kabardino-Balkaria.

Ezinbesteko dokumentazioa: Pasaporte, Errusiara sartzeko bida eta igotzeko baimena. Bisa lortzeko, hotelaren nahiz pertsonaren gonbidapena behar da, zeinean ostatua nork emango dizun zehazten den. Halaber, ingurua Georgia eta Errusiaren arteko mugan dagoenez, beharrezkoa da *border permit* delako baimena lortzea, jadanik Kaukasoren egonik. Aldiz, igoera-paketea kontratatzeak (gidaria, aterpea, beldar-ibilgailua...) ez du merezi, ez osorik ez zatika, norbera eta mendiaren arteko oztopoa baino ez da eta.

Informazio-iturriak:

www.elbrus.org (ingelesez)

www.elbrus.net (ingelesez)

www.pilgrim-tours.com (gaztelaniaz) - "Lite Paquete para el viajero independiente" delakoari begiratu

www.cetneva.com (gaztelaniaz)

www.summitpost.org/trip-report/170539/interview-with-boris-tilov-the-chef-of-the-rescue-service-of-elbrus-region.html (ingelesez) - Elbrus inguruko mendizain buruarekiko elkarrizketa

www.summitpost.org/trip-report/170539/interview-with-boris-tilov-the-chef-of-the-rescue-service-of-elbrus-region.html (ingelesez) - Elbrus inguruko mendizain buruarekiko elkarrizketa

■ Elbruseko mendebaldeko gailurra (laugarren eguna)